

txintxonga



2005ko AZAROA – 22. alea

AMOROTO ESKOLAKO ALDIZKARIA

HERRIKO BERRIAK

ZERGAK

HERRIKO ZERGAK 2006RAKO IPC IGOKO DITUZTE.



BANDA ZABALA

BANDA ZABALA- INTERNET ABENDURAKO EGONGO DA ETXEETAN ANTENA BIDEZ.

2006 KO EGUTEGIA

LEA IBARREKO EGUTEGIA 2006 LEHIAKETAREN BALDINTZAK:

LANA: ARGAZKI, MARRAZKI EDO ORDENAGAILUZ EGINDAKO EDOZEIN KONPOSAKETA IZAN DAITEKE. GAIA LEA IBARRA DA ETA AURKEZ-PENA LEA IBARREKO UDAL MANKOMUNAZGOAN IZANGO DA.

OHARRA: HILABETEA ETA EGUNEN ZENBAKIAK EZ DIRA JARRI BEHAR.

SARIA: 450€ ETA 2006KO EGUTEGIAN AGERTZEA.

ESPELOLOGIA IKASTAROA

IKASTAROA AZAROAREN 12,13,19ETA 20AN EGUN OSOAN ZEHAR IZANGO DA ,LEA-IBARREKO KOBETAN.

PARTAIDEAK 16 URTETIK GORAKOAK IZAN BEHARKO DIRA ETA 40 € ORDAINDUKO DITUZTE. URRIAREN 10-A BAINO LEHEN IZENA EMAN BEHARKO DA MUNITIBAR,AULESTI,GIZABURUAGA, AMOROTO ETA MENDEXAKO UDALETAN EDO 946843077 TELEFONOA.

ESKOLAKO BERRIAK




ANTZERKIA

Azaroaren 25ean Azpeitira joango gara emanaldi bat egitera. Antzerkia: "BARATZEKO ANIMALIEN BORROKA" izango da. Orain dela bost urte ere parte hartu genuen 1.998an. Azpeitiko eskola antzerkigintzako topaketetan. Antzerkiaren ondoren txikiek kantatu eta dantzatu egingo dute.



AZTERKOSTA

Azaroan azterkosta egingo dugu, lehenengo mailatik gora joango gara azterkosta egitera.



ZOKKETA


Urtero bezala gabonetako otzara, zokketatuko dugu, oparia otsara bat izango da, eta otzara hori herriko tabernan egongo da, ikusgai. Boletoak guk egingo ditugu eta zokketa Abenduaren 23an izango da.

ZORIONAK!!!

URTEBETETZEAK

MIKEL ARRIZUBIETA AZAROAK 11

UNAI GABIOLA AZAROAK 18



NATURA ERESPETAKO DUGU

"Amotarrok" zikinkeriz gure herri hau kutsatzen dugu. Adibidez zikinkeri hauek botatzen ditugu: pakete poltsak, zigarroak, pipa azalak, kokakola latak, goxoki paperak, etab.

Horrek kalte egiten dio naturari, kalte egiten dio gure herri polit honi. Nahiko genuke denok Amoroto herria zaintzea, kanpotarrek ikusteko nola zaintzen dugun herria eta natura errespetatzen dugula konturatzeko.

Herri honek daukan altxorrik onena NATURA da.
Zaindu dezagun denok.



KARTELAK

Kanpoko jendeak "Amoroto" jartzen duten kartelak lapurtzen dituzte. Guk ez dugu nahi kartelak kentzea. Uste dugu "Vaya Semanitan" esaten dutena gaitik lapurtzen dituztela kartel hoiek.